

Ama gaxo dago. Antzerkia

Andoni

Euzko Deya [Buenos Aires], 566. zk., 1964-09-30.

Denbora gutxi barruan Caracas'etik idasti bi artu ditugu, bata eta bestia Ugalde'tar Martin'ek egiñak.

Joanzen urtean, idatzi genduen bezala, "Cuando los peces mueren de sed" (erreportajeak) eldu zan gure eskuetara; orain, "Ama gaxo dago" (antzerkia).

Lau ataltxotan idatzita dago Ugalde'n lenengo antzerkiak eta bere lan guziak bezela, ederto idatzita.

Lenengo bi itz'etan, ezaten du egilleak, Monzon'tar Telespor jaunari laguntz eske joan zala agertu baño len. Ola izango da, baño nola ondo esagutzen degun Martin bakigu bere "lantxoa" ondo artukozuala Monzon jaunak.

Guk ere pozik irakurri degu, pozik irakurri genduzen bezala beran aurreko languziak. Tellagorri'k ezan zuan egun baten, Ugalde zala guda ostian agertu dan idazlari onena. Ori ezan zuan erderaz dazten zituan lan etaliburua gatik. Gaur gauza bera ezan bearrian gaude euskeraz idatzi dituan gausa gaitik, ba uste degu, euskeraz ere, Ugalde dala idazlari onenatarikoa. Caracas'en bizi izan bearrian, Euzkadi'n bisi izango balitz, nor daki...

* * *

Ama aspaldian gaxo dago. Danok dagiku ori. Amak, osatzeko danon laguntza beardu. Ola ezaten degu zarritan, baña gro, zer egiten degu. Jardun... bai, eta errasoai ezpadegutu emoten... tas, lenengo urrundo... gero aldendu. Bitartean ama gaxo dago... baña bere gaxoa, biotzeko gaxoa da. Eta orren sendagillea... seme guzien alkartasuna da noski. alperrik beste sendagille ta botika sendakiak. Alperrik ere gure espanetako Gora Euzkadi Azkatuña, biotz barrutik badu urtetzen deagar orrek. Alperrik espanetako abertzaletazuna, alkartasunaren aurka badua.

Ama gaxo dago... Ugalde'k idazten duan bezela, euskeraz idatziko baluteke dakienak ondo, ama ori asiko litzateke osatutzen; eta idazkiakin itzakin batera ematen ba diogu bere seme guzien alkartasuna, posez beterik, laister ikusiko degu nola jaikitzen dan, emateko geroberak guziori bere biotzeko berotasuna. Ori nai du Ugalde'k ezan bere antzerkiaren bitartez. Eta garbi eta ondo ezaten du.

Orrekaitik, zorionak Martin, eta zergaitik ez, ezkerrik asko.